

## **Martxoak 21: adierazpen instituzionala**

### **Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna**

2016 honetan, edozein adierazpen arrazista eta xenofobo salatu nahi dugu Basauriko Kulturarteko Mahaia osatzen dugunok (Solidaridad Euskalmón, Colombia Euskadi, Cáritas Basauri, Emakumeak Aniztasunean, Senarte Elkartea y eta Basauriko Udaleko Immigrazio Atalak), martxoaren 21ean Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta.

Izan ere, arduratuta gaude Mediterraneoan hil, edota Europari ate joka ari zaizkion pertsonen gaineko axolagabekeriarekin. Milioika lagunek utzi behar izan dute sorlekua gerrari, goseteei eta etsipenari ihes egiteko, eta, orain, babesgabetasun-egoera dramatikoa bizi dute. Munduan 59 **MILIOI PERTSONAK** utzi behar izan zuten bizilekua 2014an, halaberharrez: egunero-egunero Basauriko biztanle GUZTI-GUZTIEK, gogoz kontra, alde egitearen pareko kopurua.

Milaka familiak babesari bilatzen dute nazioartean eta, bien bitartean, Europako gobernuak konpromiso falta erakusten dute, alegia, urratu egiten dituzte babesari, asilo-eskubideari eta giza eskubideen defentsari buruzko nazioarteko araudiak. Horrekin batera, aipatzekoa da komunikabideen manipulazioa, bestelakoak direnenganako *beldurraren diskurtsoa*, eta eskuin-muturreko taldeek pertsona horiek baztertu, kriminalizatu eta erasotzeko duten erabateko inpunitatea.

Martxoaren 21 hau baliatu nahi dugu basauriar guztiei eskatzeko gure herrian arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko: guzti-guztiok aintzat hartuko gaituen mundua nahi dugu, non guztion eskubideak babestuko diren, gure sorlekua edo jatorria edozein izanda ere.

Gizarte erakundeok eta Basauriko Udalak Espainiako Estatuari eskatu nahi diogu bete dezala nazioarteko babesari eta asilo eskubideari dagokionez hartutako konpromisoa, eta bere mugen barruan ere giza eskubideak babestu ditzala. Bat egiten dugu Basauri integratzaile eta anitzagoa nahi duten gizarte mugimenduen, taldeen eta erakundeen aldarrikapenekin. Herri solidarioagoa nahi dugu, eta denok jarri behar dugu geure alea. Bi hitzetan: Basauri babesleku bihurtu nahi dugu.

Berba hauekin, bada, mundu bidezkoagoa aldarrikatzen dugu martxoaren 21 honetan. Era berean, eta modu sinbolikoan, gonbita egin nahi diegu herritar guztiei ahalegin kolektibo hori islatuko duen horma-irudia margotzeko, honako lelo honekin: «Basauri, integratzailea eta anitza». Hitzordua martxoaren 19an izango da, 17:00etatik aurrera, Solobarria plazako karpan. Zeu ere behar zaitugu!

GIZARTE-POLITIKAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA